



GAZTETAN

GAZTETAKO gertaerak esaten asten danian Joše Begi, igeltzerua, ikustekuak izaten dira.

Izan ere Begi'ren gauzak ikusteak izatia ez da zergatikan arriturik.

Oraingo jai abekin oso arroturik dago. Itza badijoakiyo belarriyetatik ere.

Lengo gaztiak ziran mutillak, lengoak; ez oraingoak. Ala diyo Begi'k, chistuba eskubetara botiaz.

—Jo Tolosa, jo Pasaya, jo Irun, jo Panplona, jo Azpeitiya, gu giñan, gu, mutillak gure garayian.

—Orrenbeste jo ta, ez al zizuten ordañik ematen?, galdetzen dio mutil gazte zudur luze batek.

—Oraingo gaztiak bezelako ergelak izan bagiña bai. Ez gindukan gu ordia zube bezela amaren gonapian kuskurtuta egoten.

—Ez, eguan ibilliko ziñaten zube.

—Bai noski. Ire adiña nubenian San Juan etortzeko zorutzen egoten mindukan. Besperatik Tolosa'ra, oñez; ez oraingo gaztiak bezela, bi pausa egiteko *tranbia*.

—Orduban etzalako.

—Izan bazan ere berdin izango ukan. Guk egiten genduben sarrera Tolosa'n; guztiyak abua sabalduta; «emen datoz donostiarrak», ojuka.

—Bai, ta eudiya goyen bian.

—Ajola ziukan guri eudiyaren gatik.

—*Inpermeabliak* eramango zenituzten ta.

—Bai, ta gaztañak erretzeko tanboliña eramango genikan. ¿Ik zer dakik gauza abetaz? Ik ez dakik, ez ta zergatik San Juan'etan Tolosa'n eudiya egiten duben ere.

—Nai dubelako.

—Zer nai ta zer porruperrejill. Nik esango diat. Beste erri guzietan San Juan'ek izaten dik eskuiko eskubaren biatz aundiurrena zerura begira. Bañan Talosa'n Santa Maria'ko eleizako atietan dagonak lurrera begira zeukak eta santuak berak esaten dik: «eudiya!» Jayak, santu orren bere aurrian asten diruk, eta, gauza jakiña, lenbizikotik eudiya parra parra. ¿Zertarako zioz bada an, San Juan ura, egoera artan, eudiya egiñ azitzeko ez bada?

—Euritakuak zabaldu azitzeko.

—Alare, ajola guchi guri. Gu giñan leku guzietan alaitasuna ta poza besterik ez ukan izaten. Batera jua, bestetik etorri, emengo abestia, ango dantza, uste gabe egun argia etortzen zitzaigukan. ¿Nor oyeratu orduban, zezenen sarrera ikusi gabe? Ura izate ukan ikustekua, ura. ¡Ango zalaparta, karras00i, zilipurdi, lasterkak! Gero berriz prosesiya ikustera. San Juan agertzen zan leku guzietan, pin, pan, pun, tiroka erasotzen ziotekan.

—¿Tiroka? ¿Zergatik?

—Nik zer zekiat bada. Eudiya egiten dubelako noski.

—¡A, bai! Arana'k zirisuzkoak botatzen zituben bezela.

—Bazkaldu bapo ta zezenetara. Gero andik Igarondo'ra dantzariyak ikustera, San Juan'en marcha entzunaz. ¡Mutillak, gauza ederra ikusi nai dubenak, Igarondo'ra San Juan egunian! ¡Ez dek *probintziyan* gauza ederragorik egiten!

—Eudirik egiten ez dubenian.

—Eudiya eginta ere zer; Igarondo'ko ostope atsegiñian ezin litekek iñor buzti ta. Andik apaltzera, ta gero jarraitu berriro azken gabeko alaitasun pozgarriari urrengo eguna argitu arte. Ta orrela egun bat eta bestia ta nik etzekiat zenbat; ler egiñ arte.

—Orduban echera.

—¿Zer echera? Orduban Pasai'ra San Pedro'tara; an ere naikua jolastu ta gaberako Irun'ara San Marzial'etara.

—Ori da abiyadura, ori.

—¿Zer uste dek bada? ¿Zubek bezela? Goizian goiz, gudari ichurakoak beren edaridun edo *kantinerakin* ta erriko musika irteten zirane-rako an giotzikan gu zuzen asko. Gero, ayekin, San Marzial tontorre-

ra; an ederki gozaldu ta dantza puzka bat egin ta errira, bazkaitara.

—Ez da makala.

—Ez noski. Irun'en jostatu nai guziya ta gero Deba'ra edo Motriko'ra; ta nai ta naiezkoa, Panplona'ra. Ango oju ta zalapartak ere entzutekuak izaten dituk bada.

—¿Bañan ez altzan beñere amaitzen zuben jai-aldia?

—Zer amaitu biar zikan. Ire adiñian ez nindukan ni, bi illabetian echeratzen.

Au entzuterakoan, ordu arte isilik zegon igeltzero zar batek, mutil gazte, zudur luzeari, esan zion:

—Etzakala ezer ere chiništu. Gezurrak dituk guziyak. Ire adiñian Begi'ri bere amak igandetan lau kuarto ematen zizkiokan.... *ai marirako* echera etortzeko itz eman ta gero.

A. DARRA

